

Hareako biztanleak.

Galera, eskila edo itsasoko marisorgina krustazeo malakostrazeoa da, eta hondo hareatsuetan bizi da.

Abiada bizian, bere hanken mirarizko mugimenduaz induskatzen ditu zulobideak.

Lana amaitzeko, bi apendiz indartsuren bidez hondakinak mugitzen ditu, traba egiten ez duten leku batera.

Induskatzen dituen tuneletan bizi da, eta janari bila soilik irteten da: krustazeoak, poliketoak eta arrain txikiak. Pedunkulu giltzatueta kokatutako Ikusmen handiko bere begiak ehizakiak aurkitzeko lehenengo arma dira. Nekaezina dirudi, giza eraikuntzetan makina bat baino gehiago beharko lirartekeen ekintzak konbinatzen ditu.

Itsasoko marisorgina ez da induskatzen duen animalia bakarra. Beste teknika batez, molusku gasteropodo honek emaitza bera lortzen du: bere burua lurperatu eta harrapariengandik ondo babestu... edo ez hain ondo?

Marisorginaren eremura sartu da, eta harean tunelak egiteaz ari bagara, hobeto zultzaile maisu honekin ez lehiatu. Bere tuneletako sarkinaz ohartu da marisorgina, eta, beste harritxo bat izango balitz bezala kanporatu egiten du koplari gabe.

Eta orain karramarro bat! Baina ez dago marisorginaren begi berde eta hagin boteretsuei ihes egingo dionik.

Karramarroa ez da marisorginaren aurkaria, baina apur bat distraiteza lortu du.

Generokideen arteko harremanak ez dira beti diruditena.

Itxuraz, karramarro hauek ez dira bata besteaz fidatzen, baina gero elkarrengana doaz; errespetu gutxiko probokaziotzat har litekeena, gorte egiteko ohitura ere izan daiteke. Askotan, bateraezinak diruditen izakiek elkarrekin amaituko dutela aurreikus daiteke.

Baina hareatako fauna ez da hor bukatzen.

Holoturia edo Itsas luzokerrak nora ezean dabilta harearen gainean, motel mugituz jalkinetatik partikulak biltzen. Ahoko garroak estaltzen dituzten papiletan itsatsita gelditzen da aurkitutakoa. Gorputza uzurtuz tunelak induska ditzakete, gainera.

Baina itsas luzokerra ez dabil beti bakarka. Itsas luzokerraren, bibalbioen eta beste zenbait ornogabeen parasittoa da *Carapus acus* arraina. Zientzialari batzuek diotenez, heldutasun sexualera iristeko, itsas luzokerraren gonada jan behar du, baina hori ez dago frogatuta.

Baina jango dituen gonadak luzokerraren barruan daude.

Gorputz luzea eta trinkoa duen *Carapus acus* gaztea, gardena eta urre eta zilarrezko distirekin, ezin da libre bizi. Ahoarekin itsas luzokerrari hurbiltzen zaio, eta zalantzarik gabeko mugimendu batez bere ostalariaren barrura sartzen da.

Ostalaria eta maizterra noraezean ibiltzen dira harean zehar. *Carapus acus* ale heldua izango balitz, aske bizi eta harrapari bentonikoak ehiza zitzakeen.

Inbasio horregatik itsas luzokerra ez da hilko. Badirudi, ondoeza handia bada, bere ugali organoak kanpora ditzakeela, parasitoengandik askatzeko. Gero, organo hauek lehenera etorriko dira, baina baliteke berriz ere parasitoak hartzea. Pertsona batek pentsatuko lukeena gorabehera, naturan ez dago izaki onik ez gaiztorik. Naturan, gertakariak bikainki orekatuak eta konpentsatuak dira. Itsas luzokerrak nahiz *Carapus acus* arrainak beharrezko funtzioa betetzen dute, itsas honoetan bizi diren organismo ugaritasunaren artean.